


**BERDINTASUNARI ETA  
DIBERTSITATEARI BURUZKO  
POSIZIONAMENDU POLITIKOA**



**CREUP**

Coordinadora de Representantes de  
Estudiantes de Universidades Públicas



CREUPen Batzorde Exekutibo Zabalduek proposatu eta idatzi du posizionamendu honen zirriborroa, eta Batzar Nagusiak onetsi 2019ko XXaren XX(e)(a)n, XXXX Unibertsitatean egindako Batzar Nagusi Arruntean.

## **AURKIBIDEA**

<b>1. Sarrera</b>	<b>2</b>
<b>Diskriminazio motak unibertsitateetan</b>	<b>3</b>
1. Genero-indarkeria eta LGTBIfobia	3
2. Arrazakeria	7
3. Kapazitismoa	9
4. Interseksionalitatea	12
<b>2. Unibertsitateen jarduera-politikak</b>	<b>12</b>
<b>1. Berdintasun-planak</b>	<b>12</b>
<b>2. Protokoloak</b>	<b>13</b>
2.1 Jazarpen-protokoloak	13
2.2. Genero-identitateko protokoloak	14
<b>3. Gidak</b>	<b>15</b>
3.1 Hizkuntza	15
3.2 Diskriminazioaren aurkako ikuspegiak txertatzea	15
<b>4. Ikastaroak</b>	<b>16</b>
<b>3. Unibertsitateei zuzendutako eskariak</b>	<b>16</b>



## 1. Sarrera

Unibertsitateek, Estatuko administrazio publikoak diren aldetik, legearen aurrean berdintasunezko eta diskriminaziorik gabeko ingurunea dagoela zaindu behar dute, jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial alde batera uzten duena, Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua ezartzen duen bezala.

Egia da berdintasunaren eta dibertsitatearen arloan Espainiako unibertsitate publikoak hasiak direla barne politikak egiten eta ezartzen, baina oraindik oso urrun daude unibertsitate-komunitate osorako aukera-berdintasuna bermatuko duen ingurune seguru bat sortzetik.

Gogoan izan behar da 1910eko martxoaren 8ra arte emakumeak ezin zirela modu ofizialean matrikulatu unibertsitatean, Instrukzio Publikoko Ministerioaren errege-agindu baten ondorioz, eta ikasle pribatu gisa agertzen zirela. Beraz, unibertsitateko ikasketak egiteko, emakume askok gizon itxura hartu behar izan zuten, edo ikasketak modu baztertuan egin; izan ere, ez zieten eskolara joaten uzten, eta, azkenean, titulua lortu ondoren, ez zieten beren lanbidean jarduteko aukerarik ematen. Bestalde, aipatu behar da mendebaleko pertsonenak ez bezalako ezaugarri fenotipikoak zituzten pertsonak maila sozial baxuagoko talde gisa sailkatu zirela, Espainiaren iragan kolonialaren ondorioz, eta Estatuko unibertsitateek bermatu egin zutela arraza-erakuntza hori, pertsonak arrazaren arabera etiketatu eta sailkatzen zituzten ikerketa sasizientifiko bidez. Era berean, dibertsitate funtzionala duten pertsonen unibertsitateetarako sarbidea galarazi zitzaie, eta mendeko talde gisa etiketatu eta sailkatu zituzten. Gauza bera esan daiteke LGBTI pertsonen buruz ere, XIX. mendearen amaieratik aurrera medikuntzak eta psikologiak aztertu eta sailkatu egin baitzituzten,



baita perbertso eta anomalo gisa kategorizatu ere. Alegia, unibertsitaterako sarbidea ukatu izanaren ondorioz, bai emakumeak, bai arrazaren arabera sailkatutako pertsonak, bai dibertsitate funtzionala dutenak eta bai LGTBI pertsonak aztergaitzat hartu izan dira unibertsitateetan, eta ez ezagutzaren subjektutzat. Horregatik, gizon zuri heterosexuala erreferentziatzat hartuta eraiki dira unibertsitateak, dibertsitatea kontuan hartu gabe. Hala, kolektibo horiek unibertsitateetan sartzeak ez du esan nahi hezkuntzan aukera-berdintasunerako eskubidea bermatu denik; izan ere, kolektibo horien diskriminazioa kultura instituzionalaren parte izatera iritsi da, eta hainbat modutan mantentzen da.

Beraz, CREUPeko kideok lehentasuna eman nahi diogu Espainiako unibertsitate publikoetan aukera-berdintasuna lortzeari, batez ere ikasleen ordezkartzaren bidez, gure ustez diskriminazioak ikasleei eragiten baitio bereziki, gu baikara unibertsitateko kolektiborik ahulena irakasle eta ikertzaileekin eta AZLeekin alderatuta.

## **Diskriminazio motak unibertsitateetan**

### **1. Genero-indarkeria eta LGTBIfobia**

Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoaren xedearen arabera, genero-indarkeria “gizonek emakumeengan gauzatutako diskriminazioaren, desberdintasun-egoeraren eta botere-harremanen adierazpen” gisa ulertzen da, “haien ezkontide direnek edo izan direnek edo afektibitate-harreman baten ondorioz haiekiko lotura duten edo izan dutenek emakumeengan gauzatzen dutena, elkarrekin bizi gabe ere”. Nolanahi ere, CREUP erakundean modu zabalagoan jorratu nahi dugu, lege horren hitzaurrean eta Nazio Batuen Erakundearen 1995eko IV. Mundu Konferentzian ezarri zen bezala. Hala, genero-indarkeria honela ulertzen dugu: “genero maskulinoan edo femeninoan eragiten duten baldintzatzaile soziokulturalen ondorioz emakumeak sufritzen dituen erasoak, hura gizonaren mende kokatuz pertsonen arteko harremanen oinarritzko hiru esparruetan: bikote-



harremanen barneko tratu txarretan, bizitza sozialeko sexu-erasoetan eta lan-inguruneko jazarpenean”.

Ikus dezakegunez, definizio horrek lan-eremuko jazarpena baino ez du jorratzen, emakumezko irakasle, ikertzaile eta AZLena kasu honetan; hala ere, CREUPeko kideok ingurune akademikoko jazarpenaz mintzatuko gara, ikasleak ere barne hartzeko. Normalean, esparru akademikoan, emakumeen aurkako jazarpena sexu-jazarpentzat hartzen da, hau da, “pertsona baten duintasunaren aurka egitea helburu edo ondorio duen sexu-izaerako edozein jokabide, ahozkoa edo fisikoa, bereziki ingurune beldurgarri, umiliagarri edo iraingarri bat sortzen denean”, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoaren arabera. Gai hori landu duten Noelia Igareda eta Encarna Bodelón ikertzaileek adierazi dutenez, unibertsitateko kideen % 24k sufritu dute inoiz sexu-jazarpena. Bestalde, CREUP erakundearen beharrezkoa ikusten dugu esparru akademikoan gertatzen den sexuagatiko jazarpenaz ere hitz egitea; izan ere, ez da hain jazarpen nabaria, erabat normalizatuta dago, eta zaila da detektatzen. Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoaren arabera, hona hemen sexuagatiko jazarpenaren definizioa: “pertsona baten sexuaren arabera izandako edozein jokabide, haren duintasunaren aurka egiteko eta ingurune beldurgarri, umiliagarri edo iraingarri bat sortzeko asmoz edo sortzearen ondorioz”. Adibide gisa, eta definizio hori argiago ikus dadin, honako egoera hauek jotzen ditugu sexuagatiko jazarpentzat: emakumeei beren gaitasunei edo lanbide-kategoriari dagozkiena baino erantzukizun txikiagoko lan bat esleitzea; emakumeek egindako iruzkin, ekarpen edo ekintzei jaramonik ez egitea; umore sexista erabiltzea; emakumeek egindako lana mespretxatzea; etab.

Horrela, sexuagatiko jazarpena unibertsitatean modu askotan gertatzen dela ikus dezakegu. Unibertsitateko emakumezko ikasleen kopurua eta unibertsitatean botere-posizioaren batean dauden emakumeena alderatuz gero, emaitzak oso azpimarragarriak dira. Izan ere, 2007-2008 ikasturtean tituluren bat lortu zuten pertsonen % 61



emakumeak ziren; 2015ean, berriz, katedradunen % 21 baino ez ziren emakumeek, eta, gaur egun, emakumezko 7 errektore baino ez daude unibertsitate publikoetan. Alegia, unibertsitateen oinarria gehienbat emakumeek osatzen badute ere, betoa jarria dute oraindik boterezko eta erantzukizunezko lanpostuak eskuratzeko; “kristalezko sabaia” deitu izan zaio horri. Horrela, ikus dezakegu Espainiako unibertsitateek badituztela inklusiorako mekanismoak, baina ez dutela emakumeen kontrakoa ez den eta haien lan-ingurune seguruak sortzen dituen atxikipen-mekanismorik.

Gizonekin konparatuta emakumeek oraindik ere etxeko lan gehienak egiteak eragina du kristalezko sabai horretan; izan ere, denbora gutxiago izaten dute prestakuntza eta lan profesionalean aritzeko; gizonek, berriz, aukera handiagoa dute. Bestalde, azken ikerketetan “unibertsitateko etxeko lanak” ari dira aipatzen. Karrera akademikoan aurrera egiteko kontuan hartzen ez diren zeregin ikusezin eta ordaindu gabekoak dira horiek, hala nola jakintzagai bat baino gehiagotako batzordeetan parte hartzea edo ikasleei arreta ematen denbora gehiago pasatzea.

Emakumeen hazkunde akademikoa eta profesionala zailtzen duen kristalezko sabaiaz gainera, beharrezkoa da ikasleek jakintza-adarraren arabera duten profila nabarmentzea. CyD Fundazioak Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministeriotik ateratako informazioaren arabera egindako txosten batek adierazten duenez (2016-2017), emakumeak gehiengoa dira zaintzara eta prestakuntzara bideratutako graduatan: haur-hezkuntzako irakasleen prestakuntza (% 93), gizarte-lana eta orientazioa (% 81,9), hezkuntza (% 80,7), erizaintza (% 80,4) eta medikuntza (% 66,4). Aldiz, alderantzizko kasuan, nabarmena da emakumeek ingeniarietan eta gradu teknologikoetan duten presentzia txikia, hala nola informazioaren eta komunikazioaren teknologietan (% 12), elektroniketan eta automatiketan (% 17,4), jarduera fisikoetan eta kirol-jardueretan (% 17,9) eta ingeniarietara zibilean eta eraikuntzakoan (% 32,4). Hau da, datu horiek



erakusten dute genero-estereotipoak oraindik ere errotuta daudela unibertsitateetan nahiz horietatik kanpo.

Bestalde, LGTBIfobiaren aurkako Babes Integralari buruzko 3/2016 Legearen arabera, LGTBIfobiatzat jotzen dugu “beren burua LGTBII gisa aitortzen duten emakumeen edo gizonen aurkako arbuioa, beldurra, gaitzespena, aurreiritzia edo diskriminazioa”. Era berean, LGTBII kolektiboak sufritzen dituen diskriminazioak hiru jazarpen motatan sailka ditzakegu: sexu-orientazioagatiko jazarpena, genero-adierazpenagatiko jazarpena eta genero-identitateagatiko jazarpena.

Sexu-orientazioagatiko jazarpena honela ulertzen dugu: “pertsonei bere sexu-orientazioa dela-eta sufritzen duen jokabide edo ekintza iraingarri, umiliagarri, bortitza edo larderiatsu oro, pertsona horren duintasunaren aurka egiteko eta ingurune diskriminatzaile bat sortzeko xedea duena, edo horren ondoriozkoa”. Adibide gisa, sexu-orientazioagatiko jazarpenentzat jo dezakegu sexu-orientazioagatik pertsonen modu iraingarrian hitz egitea, umore lesbofobikoa, bifobikoa edo homofobikoa erabiltzea edo sexu-orientazioagatik haien ekarpen edo iruzkinei jaramonik ez egitea.

Honako hau jotzen dugu genero-adierazpenean edo -identitatean oinarritutako jazarpenentzat: “genero-adierazpen edo -identitateagatik duintasunaren aurka egiteko eta ingurune larderiatsu, liskartsu, umiliagarri, iraingarri edo banandua sortzeko xedea duen edozein portaera edo jokabide, edo horren ondoriozkoa”. Adibide gisa, genero-adierazpenean edo -identitatean oinarritutako jazarpena honela uler dezakegu: trans pertsona bati berak eskatzen duen izenez deitzeari uko egitea edo identifikatzen ez den generoko hitzak nahita erabiltzea; genero-adierazpen edo -identitate ez-normatiboak dituzten pertsonak komun/aldagela jakin batetik kanporatzea eta/edo han egon behar ote diren zalantzan jartzea, edo umore transfobikoa edo interfobikoa erabiltzea.



Espainiako autonomia-erkidego gehienek LGTBI pertsonen eskubideak bermatzen dituzten legeak dituzten arren, unibertsitate publiko gehienek ez dute azterketarik egin kolektibo horrek unibertsitatean duen egoerari buruz, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseak izan ezik. Hala, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseak sexu-jazarpenari, jazarpen sexistari, sexu-orientazioagatiko jazarpenari eta genero-adierazpenean edo -identitatean oinarritutako jazarpenari buruz egindako azterlan baten arabera, LGTBI pertsonen % 54k diskriminazio motaren bat sufritu dute unibertsitatean. Trans pertsonak eta genero ez-normatiboak dituztenak bereziki ahulak dira.

CREUPeko kideon ustez, beharrezkoa da unibertsitateetan genero-indarkeria eta LGTBIfobia desagerraraztea horietan benetako aukera-berdintasuna lortzeko. Horretarako, uste dugu emakumeen eta LGTBII kolektiboaren aurkako indarkeria esparru heteropatriarkal berberak eragindako diskriminazio gisa ulertu behar dugula, generoa ikuspegi desnaturalizatu, historiko eta kontingente batetik ulertuta, gizon/emakume eta maskulino/femenino bitartasunaz harago (Butler, 2017). Horrela, generoa eta hari lotutako indarkeriak modu zabalagoan uler daitezke, ez bakarrik gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun historikoa iraunarazteko mekanismo gisa, baizik eta LGTBIfobia sortzen duten genero-adierazpen eta -identitateen eta orientazio sexual ez-normatiboen mugak eta disidentziak ixteko mekanismo gisa ere. Hori dela-eta, CREUPeko kideon ustez, saiakera egin behar da unibertsitateetan emakumeen aurkako indarkeria eta LGTBIfobia batera desagerrarazteko, ez berezita, indarkeria horiek genero-sistema berak eragiten baititu.

## 2. Arrazakeria

Nahiz eta Espainia historikoki iragan kolonial baten arabera konfiguratu den, askotan ez da merezi duen arreta jartzen horretan. Gogora dezagun 1968an independizatu zela Espainiaren azken kolonia: Ekuatore Ginea. Egoera horrek Espainiako lurralde osoko populazioaren konfigurazioari eragin zion, zeinak dibertsitate fenotipiko handia





baitzuen berez; izan ere, gogoan izan behar da X. mendean gutxi gorabehera bazirela jadanik ijito etniako komunitateak Espainiako populazioan. Egoera horiek guztiek pisu handiagoa hartu zuten Latinoamerikako, Ekialdeko Europako eta Afrikako iparraldeko hainbat herrialdeetatik jendea Espainiara iristen hasi zenean beren herrialdeetako gatazka politiko, sozial eta ekonomikoen ondorioz, XXI. mendean hainbeste zabaldu diren nazioz gaindiko migrazioen parte gisa. Ondorioz, Espainian bizi den biztanleria are gehiago dibertsifikatuz doa, eta egoera horrek gizarte-eremu eta erakunde guztietan du eragina, hala nola hezkuntzan. Horrela, idiosinkrasia horiek guztiak biltzen dituzten inguruak izan ohi dira unibertsitateak. Horrek guztiak unibertsitate-komunitatea ildo historiko horietatik ikusteko premia azpimarratzen du, ikasleek ikasgeletan indarkeriarik eta diskriminaziorik ez sufritzeko sare egokiak eta bidezkoak sortzearen.

Hegemonikoki zuria den populazio baten iruditeria sozialak, ikusten dugun bezala, ez du kontuan hartzen populazioaren osaeraren errealitatea, eta, iruditeria horrek arrazakeria indartzen duten sentimen kolektiboak eragin ditzakeenez, CREUPeko kideok alderdi horien inguruko lankidetzarako eta sentsibilizaziorako ildoak ezarri nahi ditugu unibertsitate-komunitate osoarentzat, benetan zer gertatzen den agerian uzteko eta gerta daitezkeen gatazken aurrean esku hartzeko eta konponbideak bilatzeko mekanismoak ezartzeko.

Azpimarratu behar da arrazismoa ez dela soilik pertsonen larruazalaren koloreagatik diskriminazioa, eta bereizkeria hori, arrazakeriaren aurkako kolektiboek adierazi duten bezala, arrazaren arabera sailkatutako pertsonen aurkakoa dela: ez da pertsonak beren jaioterriaren arabera ezaugarri fisikoengatik defintzeko kategoria bat, baizik eta erakunde eta estatuetan, gizartean berean eta erlazionatzeko eran sorburua izan dezakeen indarkeria arrazista sufritzen duten gorputzak aipatzeko modu bat. Fenotipotik haratago doa, eta azentua, hizkuntza, erlijioa eta ohiturak ere hartzen ditu



barne. Horren guztiaren ondorioz, arrazaren arabera sailkatutako gorputz bat eta gorputz zuri bat posizio desberdinean egonen dira.

Hortaz, arrazismoa kontzeptu konplexua da, eta bere esanahia sozialki eraiki diren kategoria hierarkikoetan sailkatutako giza taldeen bidez eratzen da. Sailkapen sozial hori arrazaren kontzeptuan oinarritzen da, eta pertsonen arteko desberdintasun biologiko eta fenotipikoak nabarmentzen ditu (azalaren kolorea, ezaugarri fisikoak, ilearen ezaugarriak, alderdi morfologikoak). [1] Eta beharrezkoa da zirkunstantzia-sare konplexu horri behar bezalako arreta ematea, beste errealitate batzuen elkargune baitira, hala nola generoarena edo klase sozialarena, eta eragina baitute ikaslearen ahultasun sozialean.

Horrenbestez, CREUPen helburua honako hau da: arreta espezifiko ematea pertsona batek bizi ditzakeen gizarte-egoera guztietako bakoitzari, baina, betiere, ikasleek, irakasleek eta unibertsitate-komunitateko beste eragile batzuek indarkeria erabiltzeko balia dezaketen ahultasun-egoera baten sare konplexuarekin lerrotatuz egoera horiek.

### 3. Kapazismoa

Kultura askoren bizikidetzak sinesmen, balio eta ohitura ugari sortu du historian zehar, eta horietatik abiatuta garatu da gure gizartearekiko pentsatzeko modua. Gaur egungo dibertsitate kulturala gorabehera, kasu gehienetan desgaitasunen bat duten pertsonen inguruko ideia eta jarrera tradizionalak proiektatzen dira oraindik, gizarte-ordena desorekatuan oinarrituak eta gizakien arteko desberdintasunak positiboki baloratzen ez dituztenak. Bereziki kaltegarria da hori desgaitasunaren kontzeptu sozialean proiektatzen denean, edo, are okerragoa, desgaitasunen bat duten pertsonen identitatearekin ere lotzen denean.

Horrela, bada, esan dezakegu kapazismoa eraikuntza sozial bat dela, eta ideia orokor baten gainean ezarri dela: funtzionaltasunak edo trebetasunek gizakiak eta haiek



gizartean duten erabilgarritasuna definitzen dituztela, normaltasun-estandar batzuen pean. Beraz, ezin izan da onartu edo ulertu desgaitasunen bat duten pertsonak gainerako pertsonen baldintza berberetan bizitzea, ez datorrelako bat normaltasunaren kontzeptu horrekin. Horrela, desgaitasuna ezaugarri negatibo gisa definitu izan da maiz, eta horrek oztopo asko ekarri ditu. Alegia, kapazitismoa diskriminazio ideologiko eta material mota bat da, desgaitasunen bat duten pertsonen zuzendua dagoena eta desgaitutzat jotzen dituenak. Aurreiritziak eta estereotipoak dira, pertsona jakin batzuk gutxien dituztenak funtzionaltasunari eta gaitasunari dagokien giza dibertsitatea agerrarazten duten ezaugarriak dituztelako, eta legetan eta arkitekturako edo hirigintzako egitura materialetan ere islatzen dira, baita egitura kognitibo edo komunikatiboetan ere.

Desgaitasuna ere diskriminazio modu gisa uler daiteke, dagoeneko aitortuak dauden beste diskriminazio mota batzuen antzekoa, hala nola genero, etnia, adin edo sexu-orientazioagatiko diskriminazioen antzekoa. Are gehiago, diskriminazio horiek batzuetan izaten dituzten elkarguneak ere kontuan hartu behar dira. Testuinguru horretan, ulertzekoa da desgaitasunen bat duten pertsonen garapen eta bizi-kalitate kaskarrak gizarte-diseinu kapazitista baten emaitza direla neurri handi batean, eta ez datozela bat giza izaerari datxekion dibertsitatearekin. Beraz, ez da harritzekoa desgaitasunen bat duten pertsonen nahiz ez dutenek pentsatzea jendearengandik gutxiago espero izateko arrazoi bat dela desgaitasuna, edo haienganako jarrera positiboa ez agertzeko, haiek bereizteko edo are haienganako nazka sentitzeko ere. Diskriminazioan oinarritutako eraikuntza historiko baten emaitza logikoa da.

Hori dela eta, unibertsitateetan lehentasuna eman behar zaio desgaitasunen bat duten ikasleen eta hezkuntza-laguntzako beste behar espezifiko batzuek dituztenen inklusioaren arazo soziala definitzeko. Horretarako, kontuan hartu behar da desgaitasunen bat duten pertsonen hezkuntzarako eskubidea. Desgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Hitzarmenaren 24. artikuluan dagoela



jasota (2008az geroztik dago indarrean Espainian). Beraz, derrigorrezkoa da hori betetzea, eta organo eskudun eta erakunde publiko guztiek norabide horretan egin beharko lukete lan.

Desgaitasunen bat duten ikasleak sozialki garatzea eta bizitza publikoan parte hartzea hezkuntza inklusiborako eskubidearen parte da, baina hezkuntza inklusiboa, aldi berean, erronka bat da gaur egun gure hezkuntza-sistema benetan justua, kalitatezkoa eta gizarte-errealitatearekiko koherentea izan dadin, prozesu horrek hezkuntza-maila guztiak inplikatu behar dituela eta gizarte-proiektzio handia duela ulertuta.

Europako Unibertsitate Eremua definitzeko balio izan zuten ondoko ondoko adierazpenetan, “dimentsio soziala” deiturikoa jaso zen. 2007tik aurrera, bereziki azpimarratu da horren beharra unibertsitateen eremuan gizarte-kohesioa eta desberdintasunen murrizketa sustatzeko eta posible egiteko bide gisa. Hortaz, hezkuntza-etapa horretan sartzen diren, parte hartzen duten eta ikasketak bukatzen dituzten ikasleek Europako gizartearen dibertsitatearen adierazgarri izan beharko lukete maila guztietan. Eta, ondorioz, konpromiso bat formalizatu beharko lukete zenbait ahalegin egiteko: zerbitzu egokiak emateko, ikaskuntza-ibilbide malguagoak sortzeko bai sarbiderako bai ikastaldi osorako, eta parte-hartzea zabaltzeko aukera-berdintasunean oinarrituta.

Horrela, posizionamendu honek lotura argiak ditu erantzukizun publikoarekin; izan ere, aukera-berdintasuna bermatzeko eragile erabakigarri gisa definitzen dira unibertsitateak, adibidez. Halaber, loturak ditu ikasleak erdigune dituen ikaskuntzarekin ere, hori izanen bailitzateke hezkuntza inklusiboa ezartzeko oinarria. Horrela, unibertsitateek ere gogor egin behar dute lan historikoki baztertuak, bereziak eta gutxiegi ordezkatuak egon diren taldeak baldintzatzen jarraitzen duten oztopoeti heltzeko eta horiek gainditzeko.



## 4. Interseksionalitatea

Ulermena eta diagnostikoa erraztearren zapalkuntza-egiturak bereizita aztertu baditugu ere, CREUPeko kideok uste dugu beharrezkoa dela ikuspegi interseksionala izatea berdintasunaren eta dibertsitatearen arloko politika publikoei heltzeko orduan. Izan ere, gure ustez, generoa, sexu-orientazioa, etnia, arraza, klasea eta dibertsitate funtzionala modu espezifikoetan erlazionatzen dira.

Nolanahi ere, Espainiako unibertsitate publikoek ez dute begirada hori aplikatzen. Bereizketa argia dago berdintasunaren eta dibertsitatearen artean, lehenbizikoak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna soilik hartzen baitu barne, eta bigarrenak, berriz, LGTBI pertsonak, dibertsitate funtzionala dutenak eta arrazaren arabera sailkatutakoak ere bai. Hala, beharrezkoa ikusten dugu elkarlanean aritzea ziurtatzearen zapalkuntza mota desberdinen elkargunean dauden pertsonak politika publikoetan sartuta geratzen direla eta erakundeen indarkeria sufritzen ez dutela.

## 2. Unibertsitateen jarduera-politikak

Espainiako unibertsitate publikoek hainbat jarduera-ardatz dituzte unibertsitateen berdintasuna lortzeko. Jarraian, horietan egiten diren jarduera nagusien diagnostiko txiki bat egingen dugu.

### 1. Berdintasun-planak

Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoaren 64. artikulua arabera, Estatuko administrazio publikoek eta, beraz, unibertsitateek berdintasun-planak egin behar dituzte. Tratu- eta aukera-berdintasunaren eta horren sustapenaren arloan lortu beharreko helburuak ezarriko dira berdintasun-plan horietan.



Hala, unibertsitate publikoek, beren berdintasun-planetan, unibertsitateko emakumeen eta gizonen egoeraren diagnostikoa egiten dute, eta zenbait helburu ezartzen dituzte aurkitzen dituzten diskriminazioak desagerrarazteko. Hala ere, unibertsitateetako berdintasun-plan gehienetan, helburuetan ez dugu aurkitzen helburu horiek gauzatzeko kronogramarik, arduradunik eta aurrekonturik; beraz, helburu gehienak ez dira betetzen, eta emakumeenganako diskriminazioak bere horretan jarraitzen du.

Bestalde, berdintasun-plan horietan emakumeak bakarrik sartzen dira, eta, beraz, gainerako kolektiboek ez dute berdintasuna lortzeko diagnostikorik eta helbururik izaten.

## **2. Protokoloak**

### **2.1 Jazarpen-protokoloak**

Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoaren 62. artikulua araberak, Estatuko administrazio publikoek eta, beraz, unibertsitate publikoek protokoloak izan behar dituzte sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurrean jarduteko.

Alabaina, nahiz eta unibertsitate gehienek jazarpen protokoloak eduki, *Pikara Magazinek* unibertsitatean gertatzen den jazarpenari buruz egindako azterlanean ikus dezakegu salaketen kopurua oso txikia dela. Hasiera batean pentsa genezakeenaren kontra, jazarpenagatik salaketa gutxi jartzeak ez du esan nahi unibertsitatean jazarpenik ez dagoenik, baizik eta ez direla salaketa-mekanismo egokiak ezartzen prozeduran zehar salatzailearentzat ingurune segurua bermatzeko. Hau da, unibertsitateek ez diote jaramonik egiten beren babespeko eremuan gertatzen den jazarpenari, eta, beraz, jazarpen-egoeraren bat bizi izan dutenek ez dute uste unibertsitateak babestuko dituenik eta tratu egokia emanen dienik; hortaz, ez dute salaketarik jartzen.



Bestalde, kontuan izan behar da jazarpen-protokoloen salaketa-prozedurak oso gogaikarriak eta luzeak direla, eta bigarren mailako biktimizazio-prozesuak eragin ditzaketela salatzaileengan. Prozesu horietan, behin eta berriz kontaktu behar izaten dute bizi izan duten jazarpen-egoera, eta unibertsitatearen laguntza eta babes egokirik gabe prozedurak ebatzi arte itxoin. Egoera horiek higadura emozionala eragiten dute salatzaileengan, eta horrek eragotzi egiten du beste pertsona batzuek prozedura horretara jo nahi izatea.

Aipatu behar da, halaber, unibertsitateetako jazarpen-protokolo batzuek lan-eremurako baino ez direla, eta, beraz, ikasleak babesik gabe uzten dituztela. Ondorioz, oso egoera ahulean gelditzen dira, ez baitute laguntzarik jasotzen.

Ikus dezakegunez, legez, unibertsitate publikoek sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako protokoloa baino ez dute izan behar; hala ere, uste dugu beharrezkoa dela, autonomia-erkidegoetako LGTBI legeek adierazten duten bezala, sexu-orientazioagatiko eta genero-identitateagatiko eta -adierazpenagatiko jazarpenak ere gehitzea, baita jazarpen arrazista eta jazarpen kapazitista integratzea ere. Horrela bakarrik bermatu ahal izanen da aukera-berdintasunerako eskubidea, diskriminaziorik gabeko ingurunea zaintzeaz gainera.

## 2.2. Genero-identitateko protokoloak

Unibertsitate publiko batzuk genero-identitateko protokoloak ezartzen hasi dira administrazio-dokumentuetan trans pertsonen izena aldatzea eta haien genero-identitateari dagokion tratamendua jasotzea bermatzeko. Horrela, trans pertsonak nahi duten izenaz izendatu ahal izatea bermatzen da, nahiz eta erregistro zibilean sexua aldatu gabe izan eta NAN berria lortu ez duten. Kontuan izan behar da 2015eko martxoaren 15eko 3/2015 Legearen arabera (pertsonek sexuari buruzko aipamenaren erregistro-zuzenketaren ingurukoa) sexu-aldaketa modu ofizialean erregistratzeko nahitaezkoa dela genero-disforiaren diagnostikoa egitea eta, horrekin batera, bi urteko



tratamendu bat egin behar dela, “hormonazio bidez normalean, ezaugarri fisikoak erreklamaturako sexuari dagozkionetara egokitzeko”. Prozesu hori oso luzea da beren genero-identitatea instituzionalki aitortu gabe ikusten duten trans pertsonentzat, eta, gainera, oso egoera ahulean uzten ditu, etengabe zalantzan jartzen baitute beren izena eta, beraz, genero-identitatea. Bestalde, trans pertsona guztiek ez dute hormonazio-prozesu batetik igaro nahi izen-aldaketa eskatzeko.

Hala, CREUPeko kideon ustez, unibertsitate publiko guztiek genero-identitateko protokoloak ezarri beharko lituzkete trans pertsonen beren genero-identitaterako tratamendu egokia jasoko dutela bermatzeko, haiek instituzionalki babesteko eta unibertsitatean diskriminaziorik gabeko ingurunea zaintzeko.

### **3. Gidak**

#### **3.1 Hizkuntza**

Espainiako unibertsitate publikoetako genero-berdintasunerako unitate gehienek hizkuntza ez-sexista erabiltzeko gidak prestatu dituzte. CREUPekook uste dugu hizkuntzak errealitateak eraikitzen dituela eta erabilera egokia behar dela diskurtso diskriminatzaileak gauzatzen eta erreproduzitzen ez jarraitzeko. Hala ere, gida horiek ez zaizkio unibertsitate-komunitateari aurkeztu behar bezala ezartzen direla bermatzeko; beraz, kasu gehienetan ez dira benetan aplikatzen, ezta unibertsitateetako gobernu-erakundeetan ere. Bestalde, beharrezkotzat jotzen dugu hizkuntza-gidetan arrazismoaren eta kapazitismoaren aurkako ikuspegia ere sartzea unibertsitate-komunitateko pertsona guztientzako diskriminaziorik gabeko ingurunea zaintzeko.

#### **3.2 Diskriminazioaren aurkako ikuspegiak txertatzea**

Unibertsitate batzuek diskriminazioaren aurkako ikuspegiaren inguruko gidak dituzte; hala ere, hizkuntza-gidekin gertatzen den bezala, ez da bermatzen unibertsitate-





komunitateak horiek ezarriko dituenik, ez baitzaie prestakuntza espezifikorik eman langileei eta ikasleei.

## **4. Ikastaroak**

Unibertsitateek gai askori buruzko prestakuntza-ikastaro ugari dute, berdintasuna eta dibertsitatea barne. Nolanahi ere, nahi bada parte hartzen da halako ikastaroetan, eta, hortaz, horrek ez du bermatzen unibertsitate-komunitate osoak ikuspegi ez-diskriminatzailea barneratuko duela. Beraz, CREUP erakundearen uste dugu beharrezkoa dela derrigorrezko eta doako oinarrizko ikastaroak egitea unibertsitate-komunitate osorako unibertsitateetan diskriminazioaren aurkako ikuspegia txertatzen dela bermatzearen.

## **3. Unibertsitateei zuzendutako eskariak**

Unibertsitate-komunitate osoaren behar bezalako inklusioa ziurtatzeko...

- Emakumeek, LGTBII pertsonak, arrazaren arabera sailkatutako pertsonak eta dibertsitate funtzionala dutenak unibertsitatean duten egoerari buruzko azterlanak egin daitezela diagnostiko on bat egin eta jardura-planak garatzeko.
- Jazarpenari aurre egiteko prozedurak bizkortu daitezela.
- Berdintasun- eta dibertsitate-gaietarako aurrekontua eta unibertsitateko arduradun kopurua handitu daitezela horiei lehentasuna eman dakien.
- Berdintasunaren eta dibertsitatearen inguruko arloek elkarrekin lan egin dezatela politika publikoetan ikuspegi interseksionala txerta dadin.
- Berdintasun-planetan LGTBI pertsonak, arrazaren arabera sailkatutako pertsonak eta dibertsitate funtzionala dutenak sar daitezela.
- Berdintasun-planetan horiek gauzatzeko kronograma, arduradunak eta aurrekontuak adieraz daitezela.



- Jazarpen-protokoloetan sexu-orientazioagatiko jazarpena, genero-adierazpenagatiko jazarpena, genero-identitateagatiko jazarpena, jazarpen arrazista eta jazarpen kapazitista sar daitezela, kontuan hartuta diskriminazio horiek modu espezifikoan tartekatu daitezkeela.
- Jazarpen-protokoloei buruzko komunikazio-planak gara daitezela, protokolook unibertsitate-komunitateari ezagutzera emateko eta diskriminazio horiek detektatzen laguntzeko.
- Protokoloen funtzionamenduaz arduratzen diren pertsonen prestakuntza espezifikoa izan dezatela, baita zerbitzuen ikuskaritzaz arduratzen direnek ere.
- Nahi badute, jazarpena sufritu duten pertsonen laguntza, aholku juridikoa eta laguntza psikologikoa eman dakiela, doan.
- Unibertsitate guztiek genero-identitateko protokoloak diseina ditzatela.
- Unibertsitateek berdintasunari eta dibertsitateari buruzko derrigorrezko prestakuntza-ikastaroak eman diezazkiela unibertsitate-komunitate osoari.